

RUGBYA

PILOTA

LABURREAN



Ezinean aritu ze Getxo.

Getxok porrot egin zuen laugarrenez jarraian atzo

KOLDO AIDUNTZIN / DONOSTIA

Xerox Getxok jarraian ligako laugarren partidua galdu zuen atzo, Arquitektura taldearen kontra Faduran (9-22). Sei-zazpi baja izan zituzten bizkaitarrek, eta bolada txarra eteteko aukerarik ez zuten izan, madrildarrak izan bait ziren joko erritmoa ezarri zutenak. Getxoko jokalariek kontrarioaren arrastoari jarraitu zion, azken unean nagusi agertu bazen ere, entseia lortzeraino. Alferrik ordea, Arquitekturak eragozpenik gabe eta alde nabarmenaz irabazi bait zuen Ohorezko Mailako partidua hau.

BERA BERA GAUR LANDAREN

Bera Berak partidua zaila izango du gaur arratsaldeko 4retan Hernaniko Landare zelaian Mercabarna BUC talde kataluniarren kontra. Donostiarrak lehen mailako liderrak dira ligako lehen bederatzia ihardunaldiak jokatu ondoren, 14 punturekin. Mercabarna BUC bere aldetik sailkapeneko laugarren postuan agertzen dira, 10 punturekin. Kataluniarrek hiru partidua galdu dituzte aurtengo denboraldian Alcobendas, Cornellà eta Irunen kontra hain zuzen ere.

Mercabarnakoak ohorezko mailan ibili ziren zenbait denboralditan, baina 1989-90 denboraldian maila galdu zuten eta oraingoz ez dute ohorezko mailara itzultzerik izan. Iaz bigarren sailkatu ziren beste talde kataluniar baten atzetik, Montjuïc taldearen atzetik alegia.

Bera Bera lidergoan ezarri zen hasiera hasieratik eta hor darraite oraindik. Donostiarrak partidua bakarra galdu dute —Gaztediren kontra— eta bi puntuko aldea ateratzen dio bigarren sailkatuari, Ordiziari. Norghegiagoka honetarako hutsunerik aipagarriena Isasa erdilari beterranoarena izango da. Defentsan kontu handia izan beharko dute Donostiakoek, zulorik txikiena ere ez uzteko. Orain arte Bera Berak defentsa ona, orekatua erakutsi du eta Mercabarna BUC taldearen kontra berdin jarraitu beharko dute. Izan ere, Bera Bera da orain arte puntu gehien lortu duen taldea —221— eta gutxien jaso duena —68—. Entseuetan ere nagusi dugu Bera Bera, 39rekin. Ruiz de Mendozak lortu ditu orain arte entseu gehien, guztira 14.

Unanue eta Zezeaga garaile Ogetan partidua galduta izan bazuten ere

Bergara II eta Arretxe 8-2, 11-3 eta 16-10 aurreratu ziren markagailuan

Txapela kentzeko modukoa izan zen atzo lau pilotariek Ogetan egin zuten lana. Partidu osoan zehar Bergara II eta Arretxe aurretik joan ziren, baina azken tantuetan izugarritzko susperraldia izan zuten Unanue eta Zezeagak 22-18 irabazi zuten partidua gipuzkoarrek. Askok kostata ordea, ia dena galduta izan ondoren.

XABIN MAKAZAGA / DONOSTIA

Bergara II eta Arrete amorru bizi kantxaratu ziren atzo Ogetan, Eskuz Binakako Txapelketan bigarren garaipena eta puntua lortu nahian. Unanue eta Zezeaga aldiz nahiko pattal, urduri Uberako atzelaria eta jokoan sartzeko aukerarik gabe Añorgakoa. Nafarrak 8-2, 11-3 eta 18-14 aurreratuta ibili ziren, baina azkenean izugarritzko susperraldia izan zuten gipuzkoarrek eta 22-18 irabazi zuten.

Partidu amaieran Arretxek adierazi zuen moduan, «pilota» izan zen Unanue eta Zezeagak markagailuari buelta emateko gakoa. Material bizia aukeratu zuten nafarrek, Zezeagaren hutsa behartzeko ezkerrez, atzeko koadroetan.

Eta hasieran oso ondo bideratu zuten partidua. Zezeaga nahiko urduri kantxaratu zen, eta Arretxek oso ondo kontrolatu zituen Uberako atzelariaren pilotakadak. Luzaidetako izan zen dominatzailea azken tantuetara arte, eta Ogetan bildutako pilotazaleek txaloz eskertu zuten Arretxeren ahalegina.

Hasiera kaskarraren ondoren, 8-2 eta 11-3 atzeratuta, gorakada handia egin zuten Unanuek eta Zezeagak. 11-10 hurbildu ziren markagailuan, baina berriz ere bolada nafarrentzako izan zen, eta sei tantu jarraian eginez 16-10 aurreratu ziren Bergara II eta Arretxe. Hortxe amaitu zen



Txaloz eskertu zuten ikusleek Arretxeren ahalegina.

VILLAGRAN

ordea ezustekorako bidea.

Material motela apartatu eta jokoa goitik behera kontrolatu zuten azkenean Unanue eta Zezeagak. Gipuz-

koarren alde inork ezer ematen ez zuenean, tanto piloa egin zuten, margakailuari buelta eman eta partidua irabazteraino.

Karteldegia

Gaurko partidua

BEOTIBAR. 22.45. Tolosa III - Mendia / Zabala - Iturzaeta. Eskuz Binakako Txapelketa: Retegi II - Maiz II / Eugi - Errandonea.

BERGARA. 16.30. Irazola - Berna / Muntion - Santi. Bengoetxea IV - Aldazabal II / Arteaga - Errasti. Herran - Garaia / Gabilondo - Alberdi III.

MUTRIKU. 16.30. Gorostidi - Bazeta / Alberdi - Agirre. Elorz - Galdar / Manizidor - Larrababal. Barandiaran / Astigarraga.

GALARRETA. 16.00. Larrañaga - Urretabizkaia II / Kalonge - P. Lekunberri. Erremonte Txapelketa: Arregi - Mujika I / Aseginolaza I - Mujika II. Noain - Zubeldia / Salaberria - Eizagirre.

EUSKAL. 16.00. Iriarte - Zandio / Egialde - Etxabe. Erremonte Txapelketa: Matxin II - Aizpuru / Altuna - A. Lekunberri. Aseginolaza II - Saldias / M. Lekunberri - Etxeberria. Lezea - Aranburu II / Ollo - Ulzurrun.

DEPORTIVO. 16.30. Pala Txapelketa: Isusi II - Langarika / Iriondo - Torre.

EZKURDI. 22.30. Zarandona - Enrike / Janariz - Argoitia. Artetxe - Usutorre / Nuñez - Mandiola. Moises - Bilbo / Goixerri - Madarieta.

Biharko partidua

ASTELENA. 16.30. Ansotegi - Urria / Ariznabarreta - Salbidea. Ladutxe - Zezeaga / Salaberria - Maiz II. Loiarde - Unsain / Gabilondo - Buenetxea.

IZOTZ HOCKEYA

Txuri Urdin lehen postua ziurtatzera

DONOSTIA

Hamann Txuri Urdin taldeak Puigcerdà hartuko du gaur arratsaldean Anoetako Izotz Jauregian, arratsaldeko zortzi t'erdietan. Kataluniarrek sailkapeneko laugarren postuan agertzen dira, denek aurrean egotea espero zuten arren. Txuri Urdinentzat partidua zaila izango da, Puigcerdà beharrezkoa bait du garaipena postuak aurreratzeko. Kataluniarrek bi partidua bakarrik irabazi dituzte, biak Gasteiz talde motelaren kontra, hain zuzen ere. Berdinketa bat lortu du, Jacaren kontra. Barcelona eta Hamann Txuri Urdin

aurkako neurketak galdu egin ditu.

Puigcerdàn jokatutako partiduan donostiarrak 2-3 menperatu zituzten kataluniarrek, Leszek Jachna txekoslovakiarrak sartutako hiru golei esker. Sailkapeneko atzeko postuetan dauden arren, Puigcerdà taldea arerio gogorra izango da, jokalaria bikainak bait ditu. Horien artean Frantisek Geunek atezaina eta Ota Jurbrink, biak txekoslovakiarrak eta hiru kanadiar —Espainiako nazionalitateak badute ere— dira aipagarriak. Donostiarentzat garrantzitsua izango litzateke irabaztea, lidergoan segi ahal izateko.

Iñaki Bolea, Hamann Txuri Urdi-

neko entrenatzaileak gizon guztiak erabili ahal izango ditu partidua honetan, Gonzalo Egiluz ezik. Jokalari hau ez da oraindik izandako lesiotik osatu eta beraz, ez du gaurko partiduan jokatzeko aukerarik izango. Partidu honen ondoren, Txuri Urdinek atsedean hartuko du, urtarilaren 11 arte ez bait du jokatuko.

Ligako atsedena aprobetxatuz, Sub-20 jokalaria onenak kontzentratuta egongo dira, abenduaren 27tik aurrera Erroman jokatuko den Munduko Txapelketan parte hartzeko. Hamann Txuri Urdin da selekzio honetan gizon gehien duena, guztira zazpi jokalaria.

DETROIT Pistonsek porrot egin zuen Cavaliersen aueka

NBAko azken ihardunaldian Detroit Pistons taldeak porrot egin zuen berriz ere Auburn Hill estadioan, oraingoan Cleveland Cavaliersen kontra (101-110). Azken hamaika urteetako liga hasiera kaskarra egin du Pistonsek. Lau partidua jokatu ziren azken ihardunaldian, eta gainerantzeko emaitzak hauek izan ziren: Houston Rockets 97-109 Atlanta Hawks, Milwaukee Bucks 101-109 New York Nets eta Golden State Warriors 117-107 Mavericks ●

LENDL Urre eta Diamantezko Raketan finalerdietara

Ivan Lendl txekoslovakiarra Urre eta Diamantezko Raketan deritzan txapelketako finalerdietara sailkatu da, final laurdenetan Guy Forget frantziarra kanporatu eta gero. Aurretiaz Jaime Yzagari irabazi zion Lendl-ek, eta eragozpenik ez zuen izan Forgetek Dimitri Poliakov sobietarra menderatzeko. Txekoslovakiarra etsai gogorregia izan da, ordea, Davis Kopan hain lan ona egin zuen frantziararentzat ●

LANGER lidergoan Sun Cityko golf txapelketa irekian

Bernhard Langer alemaniarra lidergoan jarri da Sun Cityn, bigarren ihardunaldian 65 kolpe egin eta etsai guztiengandik asko urrunduz. Aurreko liderra, Mark McNulty, lau kolpera du alemaniarrek. Bestetik, Craig Parry australiarrek lidergoa eskuratu du Sidneyko golf txapelketan, atzoko ihardunaldian 18 zuloak 67 kolpetan betetzean, sei parraren azpitik ●

LINEKER berriz ere entrenamenduetara itzuli da

Gary Lineker entrenamenduetara itzuli da. Tottenham Hotspur taldeko aurrelariak aurreneko saioa egin zuen atzo, iragan astean bere semeak leuzemia zuela jakin erazi ziotenetik. Bi hilabete besterik ez dituen haurraren gaitzak, minbizi larria, lur jota utzi zuen Lineker. Entrenamendu saioa normaltasun osoz egin zuen Ingalaterrako selekzio kapitainak, klubeko ordezkariak adierazi dutenez, baina ez da hurrengo partidurako deialdian sartuko ●